



ARRANKUDIAGAKO ELIZALDE PRESTUAREN
UDALA
AYUNTAMIENTO DE LA N. ANTEIGLESIA
DE
ARRANKUDIAGA
(BIZKAIA)

**2019KO ABENDUAREN 30EAN, ARRANKUDIAGAKO ELIZATEKO UDALAK
EGINDAKO EZ-OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA.**

**BERTARATUTAKO
ZINEGOTZIAK**

=====
ALKATEA

Jesus Maria "Txutxi" Ariznabarreta Zubero jauna. (EH Bildu)

ALKATE ORDEAK

Lehenengo alkate ordea, Itziar Duoandikoetxea Gonzalez anderea.(EH Bildu)
Bigarren alkate ordea, Maider Biritxinaga Malaina anderea. (EH Bildu)

ZINEGOTZIAK

Mikel Abrisketa Izquierdo jauna. (EH Bildu)
Josu Beaskoetxea Azkueta jauna. (EAJ/PNV)
Ane Miren Esparza Montalban anderea.(EAJ/PNV)
Izaskun Barrenetxea Izagirre anderea.(EAJ/PNV)

IDAZKARI KONTU-HARTZAILEA

Daniel Maeztu Perez jauna.

=====

2019ko Abenduaren 30ean, 15:30ak izanik, hasiera ematen zaio ohiko osoko bilkurari.

1. 2019KO URRIAREN 16AN, AZAROAREN 4AN ETA ABENDUAREN 9AN EGINDAKO OSOKO BILKUREN AKTAK ONARTZEA, HORRELA BADAGOKIO.

Aprobación si procede de las actas de las sesiones celebradas el 16 de octubre, 4 de noviembre y 9 de diciembre de 2019.

Aho batez onartzen dira aipatutako egunetan egindako osoko bilkuren aktak.

2. ARRANKUDIAGA-ZOLLOKO 2018-2022 EUSKARA ERABILERA PLANA DELA ETA. HIZKUNTZA IRIZPIDEEN UDAL LANGILEENTZAKO GIDAREN KONTU EMATEA.

En relación con el plan de uso del euskera 2018-2022 de Arrankudiaga-Zollo. Dación de cuentas de la guía para el personal municipal sobre criterios lingüísticos.

Jon Bollar, udal euskara teknikariak, osoko bilkurari azaltzen dio, aipatutako erabilera plana eta udal langileek erabiltzeko hizkuntza irizpideen gida. Dokumentu biak, akta honekin batera eransten dira.

3. 2020 EKITALDIRAKO UDAL AURREKONTUEN HASIERAKO ONARPENA.

Aprobación inicial del presupuesto municipal para el ejercicio 2020.

Josu Beaskoetxea jaunak (EAJ), proposatzen du, 3 eta 4 puntuak ordenez aldatzeko. Bere iritziz mailegua onartzea, aurrekontuak eztabaidatu eta onartu baino lehen egin beharko litzatekelako.

Idazkari jauna erantzuten dio, lehenengo aurrekontua eztabaidatu behar dela eta bertan kreditu operazio bat aurreikusten bada, aurrekontuan agertzen den gasturen bat ordaintzeko, orduan kreditu operazioa, kopuruaren arabera, osoko bilkurari dagokio onartzea.

Jesus Maria Ariznabarreta, alkate jaunak, azaltzen ditu bere erantzuna, EAJ taldeak, kontu berezien batzordean egindako proposamenen inguruan:

ARGITERIA (Plaza/ Aspuru zubia/tren geltokira bidea/lberlandako bidegorria)

2020an argiteriaren mentenimendu lanetarako oraingo adjudikazioa (EKOLED enpresarekin) agortzen denez, lizitazio berria egin behar da. Horrekin batera, argiteria publikoaren sare osoa aztertuko dogu, beharrezkoak diren interbentzioak martxan jartzeko. EAJ-PNVek aipatzen dituenak kontutan hartuta daude egitasmo horretan. Aurreikusten dogun erremamenteak aktuazio horiek finantzatzeko aukera eskaintzen digu.

IBERLANDAKO TABERNA

Udal arkitektoak eraikinaren egoera osoa aztertu zuen eta martxan jarri ziren zenbait lan. Batzuk eginak daude eta, beste batzuk, aurrerantzean egiteko:

EGINDA

- Fregaderan pedaldun grifoa jarri (Osasun arloko inspektoreak horrela aginduta).
- Sukaldean alikatatu lanak (Osasun arloko inspektoreak horrela aginduta).
- Teilatuaren taberna eta sukaldeko partea egokitu eta berteilatu, barruko hezetasunak kentzeko (Osasun arloko inspektoreak horrela aginduta).
- Sukaldeko sabaiko hezetasunak tratatu eta pintatu (Osasun arloko inspektoreak horrela aginduta).

EGITEKO

- Teilatuaren portxeko partea.
- Karkoma arazoa konpontzeko aurrekontuak eskatu zaizkie enpresa desberdinei eta bi eskuratu ditugu jadanik.
- Saneamendu osoaren konponketa: udal arkitektoaren txosten teknikoa dago eta udaleko lan brigadarekin adostuta dago nola egin.

ZUBITXETAKO BIDEA

Udal arkitektoa eta lan brigadako kide batek aztertu zuten arazoa tokian bertan eta zelan konpondu aztertzen ari dira.

ERABILERA ANITZEKO KANTXA

Azpiegitura honen erabilera, funtzionalitatea eta bideragarritasuna sakon aztertu behar da. Gure ustez, eraiki zenean ez zen garbi zehaztu guzti hori. Aurrera begira heldu behar zaio gaiari, baina EH Bildurentzat ez du lehentasunik 2020 urtean, beste proiektu batzuk lehenesten ditugulako epe honetan. Hala ere, oinarritzko mantentze lanak egin beharko dira.

Behin azalpenak eman ondoren, bozkatzen da puntua hurrengo emaitzarekin: 2020 ekitaldirako aurrekontuei hasierako onarpena, aldeko 4 boto (EH Bildu), kontra 3 boto (EAJ-PNV). Botoa ematerako orduan Josu Beaskoetxea jaunak esaten du, bere taldeak mantentzen dituela kontu berezian batzordean egindako proposamenak eta azken finean aurrekontuak lehentasun kontu bat direla eta bere taldearentzat, aurrekontuetan jasotzen diren lehentasun batzuk, adibidez Oxinburuko eraikinaren obrak aipatzen ditu, eurentzat ez direla hain lehentasunezkoak, eta beste aldetik, jasotzen ez diren beste batzuk bai.

4. HORRELA BADAGOKIO, INBERTSIOAK FINANTZIATZEKO 700.000 €-KO KREDITU OPERAZIOA ONARTZEA.

Aprobación si procede, de operación de crédito por importe de 700.000 € para financiar inversiones.

Idazkari jaunak azaltzen du, 3 finantza erakundei euren proposamenak aurkezteko eskatu zaiela eta hau da aurkeztutako eskaintzen laburpena:

ENTIDAD FINANCIERA	TIPO DE INTERES
KUTXABANK	Oferta A: Euribor 0 + 0,30 Oferta B: Euribor 3 meses + 0,45
CAJA RURAL DE NAVARRA	Euribor 3 meses + 0,49
LABORAL KUTXA	Euribor 3 meses +0,41

Ane Miren Esparza Montalban andereak (EAJ/PNV), galdetzen du, ze ezberdintasuna dago Kutxabankek aurkeztutako A eskaintza eta gainerakoen artean.

Idazkariak erantzuten dio, finantza-erakundeei bidalitako oinarrietan agertzen zela, lizitzaileek euriborraren gainean eskainitako marjina txikiena baloratuko zela, hau da, ikuspuntu ekonomikotik oinarritzko puntuetan eskaintza onuragarriena. Oinarri horietan berariaz ezarri zen, 3 hilabeterako Euribor izango zela eskainitako interes-tasa, gehi lizitzaileek eskaini beharreko diferentzial bat.

Era horretan, kutxabankek bere A eskaintzan, eskaini du Euriborra beti 0 izango balitz bezala, baina hori ez zan oinarrietan esaten zena, beraz, gainerako eskaintzak hartu dira kontuan.

Kreditu operazioa bideratu ahal izateko, idazkari jaunak bere txostena pasatu die alkate eta zinegotziei. Txosten horretan hurrengo proposamena egiten da:

Laboral Kutxarekin Oxinburuko eraikina, udalerriko gizarte eta kultur etxea izango dena zaharberritzeko lanak finantzatzeko, kreditu-eragiketa bat hitzartzea onartzea, baldintza hauekin:

GEHIENEO ZENBATEKOA	700.000 euro
EPEA	10 urte
GABEZIALDIA	0 urte
INTERES-TASA	Aldakorra
ERREFERENTZIA-INDIZEAREN GAINEKO MARJINA (*)	0,41
ERREFERENTZIA-INDIZEA	HIRUHILEKOKO EURIBORRA
BERANDUTZA-INTERESA	%1EKO INTERES GEHIGARRIA
AMORTIZAZIOA	KAPITAL KONSTANTEA HIRU HILEAN BEHIN
INTERESAK LIKIDATZEKO ALDIZKAKOTASUNA	HIRU HILEAN BEHIN
INTERES-TASA ALDAKORRA BERRIKUSTEKO ALDIZKAKOTASUNA	HIRU HILEAN BEHIN
KOMISIOAK	0
ESKAINTZAREN BALIO-EPEA	2 HILABETE

Toki Ogasunei buruzko 9/2005 Foru Arauaren 55. artikularen 3. paragrafoa aplikatuz, nahitaezkoa, baina ez loteslea, den txostena eskatzea Bizkaiko Foru Aldundiari.

Puntua bozkaten da eta hurrengoa da emaitza: Aldeko 4 boto (EH Bildu), kontrako 3 boto (EAJ-PNV).

5. 2019 EKITALDIAN DIRUZAINZTA GELDIKINAREKIN EGINDAKO KREDITU ALDARAZPENEN INGURUKO IRAUKORTASUN TXOSTENAREN KONTU EMATEA.

Dación de cuentas, del informe de Sostenibilidad relativo a las modificaciones de crédito realizadas a cargo del Remanente de Tesorería durante el ejercicio 2019.

Idazkari jaunak bere txostenean jasotako azaltzen du:

IRAUNKORTASUNARI BURUZKO TXOSTENA

Bizkaiko toki-erakundearen aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko ekainaren 12ko 5/2013 Foru Arauak, 4. artikuluan, honela definitzen du finantza-iraunkortasuna: egungo eta etorkizuneko gastu-konpromisoak finantzatzeko ahalmena, defizitaren, zor publikoaren eta merkataritza-zorren berankortasunaren muga barruan, indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera.-

Bestalde, aipatutako ekainaren 12ko 5/2013 Foru Arauaren 6.5 artikulua ezartzen duenez, erakunde batek zorren helburua betetzen badu, baina egonkortasunaren edo gastu-arauaren helburua betetzen ez badu, diruzaintzako gerakinarekin finantzatzeagatik dagokion erakundearen finantza-iraunkortasuna arriskuan jartzen ez duten gastuak, betiere aurrekontua aurrezki garbi positiboarekin likidatzen badu, eta 3. artikuluko 4. paragrafoan ezarritakoari kalterik egin gabe, Plan ekonomiko-finantzarioa ordezkatu egingo da, interbentzio eginkizunak dituen organoaren txosten batengatik, eta Osoko Bilkurari igorriko zaio.

Horrenbestez, honako hau jakinarazten da:

- a) Finantzatu beharreko gastuek ez dutela erakundearen finantza-iraunkortasuna arriskuan jartzen.
- b) Aurreko ekitaldiko aurrekontua likidatu dela, gastu orokorretarako diruzaintzako gerakinarekin eta aurrezki garbi positiboarekin.
- c) Urte bakoitzerako finkatutako zor-helburua betetzen dela.
- d) Egonkortasun-helburua edo gastu-araua ez dela betetzen, erakundearen finantza-iraunkortasuna arriskuan jartzen ez duten gastuak diruzaintzako gerakinarekin finantzatzeagatik.
- e) Hori guztia 3. artikuluko 4. paragrafoan ezarritakoari kalterik egin gabe.

Arrankudiagako Udalak, eransten diren kredituak aldatzeko espedienteetan, diruzaintzako gerakina erabiltzea proposatzen du, gastu horiek finantzatzeko.

Izan ere:

1.- Arrankudiagako Udalak diru-sarrera ez-finantzarioen gaineko zorren bolumena 2018ko abenduaren 31-an % 4,02 zen, hau da, Bizkaiko Foru Aldundiak 2018ko ekitaldirako ezarritako% 60-a baino txikiagoa, eta ekainaren 25eko 90/2013 Foru Dekretuak (ekainaren 12ko 5/2013 Foru Arauaren 3.4 artikulua garatzen duena eta zordundutako dirua aurrez itzultzeko irizpideak finkatzen dituena) ezarritako% 35-a baino txikiagoa. 2018ko abenduaren 31-an udal zor biziaren koadroa atxikitzen da, aipatutako urtean, likidazioari buruzko foru-ematean igorrita.

Deuda formalizada (viva+disponible) a 31-12-2018/Zor formalizatua (bizia+erabilgarria) 2018-12-31n								
Total de Ingresos corrientes/ Sarrera korronteak guztira	Emisiones de deuda/ Zor-jaulkipenak	Operaciones con Entidades de crédito/ Eragiketak kreditu- erakundeekin	Factoring sin recurso/ Errekurtsonik gabeko factoring-a	Préstamos de Administraciones Públicas/ Administrazio publikoen maileguak	Avales concedidos/ Emandako abalak	Deuda a corto plazo/ Epe laburreko zorra	Otras operaciones de crédito/ Beste kreditu- eragiketa batzuk	Total Deuda formalizada / Zor formalatu osoa
1.491.359,19 €		59.891,80 €						59.891,80 €
Nivel Deuda formalizada/Ingresos corrientes/Maila: zor formalizatua/Sarrera arruntak								4,02%

2.- Udalak bete egiten ditu hornitzaileei ordaintzeko indarrean dagoen araudian ezarritako epeak, eta, diruzaintza-plana ikusita, aurrekontu-aldaketa honek ez du eragozten etorkizuneko ez-betetzeak.-

3.- Kreditu-aldaketa honen bidez finantzatu beharreko gastuak ez du udalaren finantza-iraunkortasuna arriskuan jartzen, honako hauek baitira 2018ko ekitaldirako aurrezki garbiaren balioen eta diruzaintzako gerakinaren proiektioak:

2018ko likidazioaren arabera, aurrezki garbia 152.197,16 €-koa izan zen. Eta 752.312,10 €-ko diruzaintzako soberakina GO-rako.

Ondoriozta daiteke aurrekontu-aldaketa honek ez duela Arrankudiagako Udalaren finantza-iraunkortasuna arriskuan jartzen, abenduaren 12ko 5/2013 Foru Arauan ezarritako baldintzetan.

6. ARRANKUDIAGAKO UDALERRIAREN IZEN OFIZIALA ALDATZEKO ZOLLOKO AUZOTARREN JUNTAK AURKEZTUTAKO MOZIOAREN EZTABAIDA ETA BOZKETA.

Debate y votación de la moción presentada por la Junta Vecinal de Zollo en relación al cambio de denominación oficial del municipio de Arrankudiaga.

Udalerriri izena aldatzeko Zolloko Auzotarren Juntak egiten dauen hausnarketa eta proposamena

Zollo, 2017ko otsaila

Sarrera

1968 urtera arte Arrankudiaga eta Zollo bi herri guztiz independente izan ziren. Bi udalerrri, bakoitza bere udal propioagaz. Arrankudiagan, Arakaldon eta Zollon udal-idazkari berbera zegoen eta urte horretan zera proposatu eban: Arrankudiagak, udalerrri handiena izanik, zenbait aurrerapen teknologiko eskuratzen zituela eta (telefonoa, idatz-makina berria, ...) hiru udaletako kudeaketa administratiboa bertako udaletxetik egitea eta astean egun zehatz batzuetan atenditzea herritarrei Arakaldo

eta Zolloko udaletxeetan. Proposamen hau onartu egin eban Zolloko udalbatzak (alkateak eta zinegotziek), eta ezezko erantzuna eman eban Arakaldokoak.

Arrankudiaga eta Zolloren arteko akordioak aurrera egin eban, eta kudeaketa administratibo amankomun hori garatzeko Fusio Administratiborako Estatutua idatzi eta onartu zan Arrankudiaga eta Zolloko udalbatzen aldetik.

Garai horretan anexio kasu ugari izan ziren, baina Arrankudiaga eta Zolloren kasuan fusio administratiboa izan zen, eta ez anexioa.

Bi herri, udalerri bakarra

Fusioagaz, era honetan geratu ziren gauzak:

- Aurrerantzean bi herrietako administrazio municipalak era bateratuan kudeatuko da, aurrekontu bakar baten oinarrituta, eta entitate municipal bakar baten bitartez. Hau da, bi herri eta udalerri bakarra.
- Bi herrietarako udalbatza bakarra izendatuko da aurrerantzean. Hau da, alkate eta zinegotzi amankomunak. Gogoratu behar dugu frankismo garaiak zirela, ez zegoela hauteskunderik, eta ardura publiko guztiak diktaduraren egitura politikoak izendatzen zituela.
- Zerbitzu administratiboak Arrankudiagako udaletxetik eskainiko jakiez herritarrei era orokorrean, eta astean egun zehatz batzuetan Zolloko udaletxean.
- Herri bakoitzak bere herri izaera mantenduko dau eta bakoitzak bere ondasunak kudeatuko ditu: herri basoak eta eraikuntzak, batez ere, eta auzolanen moduko zenbait herri ekimen. Horretarako herri bakoitzean entitate publiko bana sortu zan, Arrankudiagako Auzotarren Junta eta Zolloko Auzotarren Junta.
- Bi herriek osatutako entitate municipal barriari Arrankudiaga izena jarri jakon.

Erabaki ez demokratikoa

Momentu horretan, herri desberdinak konzentrazio municipal handietan biltzea bultzatzen zan aginte politiko-administratibotik: anexioen garaiak ziren. Bilbok Txorierrri osoa anexionatu eban, Gernikak bere inguruko herri txiki gehienak, Markinak ere gauza bera, Ondarroak Berriatua, eta holan zerrenda luzea. Esan behar da ere, ia denak desanexionatu egin direla eta bakoitzak bere udal propioa daukala dagoeneko.

Erabaki formala, Arrankudiaga eta Zolloko udalbatzek hartu eben, herritarrei inolako parte hartzeko aukerarik emon barik. Ez dago ez erreferendumik, ez kontsultarik, ez batzar berezirik ezta informaziorik ere. Beraz, era guztiz ez-demokratikoan. Kontutan izan behar dogu, gorago aipatu dogun moduan, garai horretako alkate eta zinegotziak ez zituztela hauteskunde bidez herritarrek aukeratzen. Goitik beherako egitura politikoaren ordezkariak ziren eta ez herritarrenak.

Erabaki diskriminatorioa

Erabakiaren beste akats larria diskriminazioarena da. Entitate municipal berriari bi herrien izena jarri beharrean, Arrankudiagarena bakarrik jarri jakon, Zollok bere nortasun guztia galduz. Kontutan hartuta bi administrazioen fusio parekidea izan zala eta ez anexioa, hau ez da logikoa eta, gainera, guztiz diskriminatzailea eta baztertzat. Hau ez zan beste leku batzuetan gertatu. Apatamonasterio, Axpe eta Arrazola elkartu zirenean, adibidez, naiz eta Apatamonasterio izan handiena, izen berria jarri jakon udalari berriari inor ez diskriminatzeko: Atxondo.

Ondorioak

- Apurka apurka, Zolloren herri nortasuna ahulduz joan da eguneroko dinamikan, eta horretan eragin zuzena izan dau izenaren kontuak.
- Fusio Estatutoan herri bakoitzaren Auzotarren Juntak jartzen dira herri nortasuna mententzearen bermerako, baina Arrankudiagako Auzotarren Junta hasierako urte gutxi batzutan baino ez zan mantendu bizirik eta bere eginkizun guztiak Udal barriak bereganatu zituen. Logikoa da, Arrankudiagak ez dauelako inoiz bere herri izaera arriskuan ikusi.
- Zolloko Auzotarren Junta bizirik dirau, Zollorentzat bere herri nortasuna mantentzeko tresna bakarretariko dalako, baina gero eta kudeaketa esparru murriztagoagaz. Herri basoen ustiapena izan da diru iturri bakarra, baina diru sarrera oso puntualok pisu guztiz marginala daukie Udalaren aurrekontu orokorraren barruan. Gauzak horrela, Zolloko Juntak gaur egun udal batzorde papera betetzen dau eta, hori ere, ahal dauen mailan, disfuntzio askori aurre egin ezinik, Fusio Esatutuak ez dauelako eboluzionatu eta ez dagoelako egungo udal arloko legeriari egokituta.
- Zolotarrei bertako udaletxeetan atenditzearena ere, teknologia barriek eta mugikortasun aukerek aurrera egin ahala, bertan behera geratu zan, eta Arrankudiagan eskaintzen dira zerbitzu guztiak. Zolloko lehengo Udaleko dokumentazio eta artxiboak ere Arrankudiagara eroan ziren. Beraz, Zolloko udaletxeak, eraikinak berak ere, erakunde erreferentzia guztia galdu dau.

PROPOSAMENA

Erabakiak zer garaitan eta nola hartu ziren ikusita, logiko eta justuena Fusioa indargabetu eta herri bakoitzak barriro bere udala bereganatzea izango litzateke. Baina, kontu honeik goizetik gauera ezin direnez aldatu, udalariaren gaur egungo izenak suposatzen dauen diskriminazioa behintzat lehenbailehen zuzendu behar dala uste dogu.

Aspalditik, normaltasunez erabiltzen da Arrankudiaga eta Zolloko Udala izena, baina ofizialtasuna falta da. Beraz, herri bakoitzak bere udala berreskuratzeko eskubideari eta aldarrikapenari uko egin barik, Zolloko Auzotarren Juntak zera proposatzen dau:

Arrankudiagako Udala izenaren orde, Arrankudiaga eta Zolloko Udala modu ofizialean onartzea.

Pausuak

Bere garaian erabakiak herritarraz kontatu barik hartu zirenez, oraingoan gauzak era guztiz partehatzailean egin behar direla uste dogu. Bide horretan ondorengo pausuak egitea planteatzen dogu:

1. Herritarraz informatu, txosten hau Zolloko auzotar guztiei banatuz. Gaur egun herrian bizi diren askok ez dituztelako aurrekari honeik ezagutu ere egiten.
2. Zolloko herritarren batzarrean gaia era monografikoan aztertu, eztabaidatu eta ahalik eta adostasun handiena lortu.
3. Zolloko Juntak izen aldaketa Udalari eskatzeko agiria prestatu eta Zolloko herritarren batzarrean onartu. Eta, egoki ikusten bada, Juntako kideez gain, nahi daben zollotar guztiek agiria sinatu.
4. Eskaera formalki Udalari aurkeztu, eta honek osoko bilkuran onartu.
5. Udalak indarrean dagoen araubideen arabera bideratu eta kudeatuko dau udalerraren izen aldaketa.

Aipatutako mozioa bozkatzen da, hurrengo emaitzarekin: Aho batez onartzen da.

7. AP68 AUTOPISTARAKO BIDESARI HOBARI SISTEMARI BURUZ EH BILDU UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOAREN EZTABAIDA ETA BOZKETA.

Debate y votación de la moción presentada por el grupo municipal EH Bildu, sobre el sistema de bonificaciones del peaje de la AP-68.

Alkate jaunak (EH Bildu), bere udal taldeak aurkeztutako mozioa irakurtzen du:

AP68 autopistarako bidesari hobari sistemari buruzko MOZIOA

Bizkaiko Foru Aldundiak, 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera Supersur, AP-8 eta Artxandako tuneletako autobideak erabiltzeagatik, bizkaitarrek gehienez 30 euroko bidesaria hilean ordaintzeko sistema ezarri zuen indarrean.

Kontutan hartuta, jadanik, AP68 autopista ere Foru Aldundien eskumenetara pasatu dela, Arrankudiaga eta Zolloko Udaleko Osoko Bilkurak honako hau eskatzen du:

Bizkaiko Foru Aldundiak AP-68 autopistaren erabiltzaile bizkaitarrentzat martxan jarri dezala lehenbailehen, bere eskumenekoak diren Supersur, AP-8 eta Artxandako tuneletako errepideetan ezarrita duen gastu muga hobari sistema.

2019ko abendua.

Josu Beaskoetxea jaunak (EAJ-PNV), mozioaren inguruan esaten du gai hau honezkero Bizkaiko Batzar Nagusietan eztabaidatutako gai bat dela. Horretaz gain, komentatzen du, autopistaren titulartasuna bai pasatu dela Bizkaiko Foru Aldundiaren eskuetara baina ustiapena ez. Ustiapena enpresa pribatu baten eskuetan mantentzen da eta berari dagokio prezioak ezartzea eta hobariak kudeatzea.

Alkateak erantzuten dio, egoera hori ere A-8-ren kasuan ematen dela eta autopista honetan bai ematen direla hobariak Bizkaiko Foru Aldundiaren aldetik, beraz, AP-68 posible da neurri berdinak aplikatzea. Era berean, nahiz eta Batzar Nagusiei dagokien erabaki bat hartzea, eskualde honetako herrietatik presionatzea beharrezkoa iruditzen zaio.

Eta jorrazeko gai gehiagorik ez denez egon, Udalburuak amaiera eman dio Ekitaldiari eta bilkura 2019ko abenduaren 30ean, 17:15etan amaitu da. Akta hau alkateak sinatzen du; eta nik, Idazkariak, Fede ematen dut:

Y sin más asuntos que tratar, la presidencia da por finalizado el acto, siendo las 17:15 horas del 30 de diciembre de 2019. La presente acta es firmada por el alcalde y por mí, el secretario que doy fe de ello.

ALKATEA

IDAZKARIA